

Urola-Kostaldea, Tolosa, Gernika-Bermeo eta Plentzia-Mungia dira 2006ko industri jardueraren hazkundearen liderrak

Hiriburueta eta beren ingurueta-sortu zen industri aberastasunaren %51.

2006an Urola-Kostaldea izan da industri jardueraren hazkunderik handiena (%13,9) izan duen eskualdea; ondoren Tolosa (%11,8), Gernika-Bermeo eta Plentzia-Mungia (%11,4 biek), Eustaten datuen arabera. Beste muturrean hazkunde negatiboa izan duen eskualde bakarra dugu, Enkarterriak (%-3,1). Ondoan Arabako Ibarrek (%+0,9) eta Gorbeia Inguruak (%+1,3). Halere, hiru eskualde hauetan Euskal AEko industri enpleguaren %3 besterik ez dago, 7.952 pertsona inguru.

Hiriburueta eta beren ingurueta sortu zen Euskal AEko industri aberastasunaren erdia baino pittin bat gehiago %50,8. Industri balio erantsiaren %26,3 Bilbo Handian sortu zen; ondoren Arabako Lautada (Vitoria-Gasteiz) dator, %12,8, eta gero Donostialdea, %11,7. Hiruren artean 118.291 pertsona enplegatzen zituzten industrian; alegia, hiru herrialde historikoetan industriaren sektorean okupatutako pertsonen %47,2.

Herrialdeka, Gipuzkoak du eskualde-orekarik onena; izan ere, haren zazpi eskualdeetako seietan balio erantsiaren hazkundera batez bestekoaren gainetik izan da. Guztira %8,6 hazi zen, eta hazkunderik handiena izandako hiru eskualdeek –Urola Kostaldea (%13,9), Tolosaldea (%11,8) eta Goiherri (%9,6)- herrialdeko balio erantsiaren %36 osatzen dute. Industri pisu handiko beste eskualdeak ere –Deba Goiena (%9,0) eta Donostialdea (%6,3) batez bestekoaren gainetik hazi ziren.

Bizkaia izan da hazten bigarren, %4,6 eta Euskal AEko balio erantsi industrialaren %41,6 sortu zuen; sektore horretan 103.715 pertsona enplegatu zituen (%41,3). Herrialde honetan, Plentzia-Mungiak eta Gernika-Bermeok izan zituzten emaitzarik onenak; bietan %11,4 izan zen balio erantsiaren hazkundera. Herrialdean hazkunderik txikiena izandako eskualdeak, Enkarterriak, izan zuen, baita ere, Erkidegoko txikiena.

Araba %3,8 hazi zen 2005aren aldean eta 2006an Euskal AEk sortutako industri aberastasunaren %20,1 ekarri zuen. Hazkunderik handienak: Mendialdea (%9,1), Kantauri arabarra (%7,5) eta Arabako Errioxa (%5,9). Araban industri pisurik handiena duen eskualdea, Lautada, zeinak baitu balio erantsiaren %62, %3 hazi zen, bai Arabako, bai Euskal AEko batez bestekoaren azpitik.

2006ko langile landunen bilakaera apala izan da, %0,5 hazi delarik. Eskualdeka, hazkunderik handienak hauek izan zituzten: Arratia-Nerbioi (%5,0), Plentzia-Mungia (%4,0) eta Tolosa (%3,4). Beste muturrean zazpi eskualdek hazkunde negatiboak izan zituzten. Nabarmentzekoak dira Gorbeia Inguruak, non industri enpleguaren galera %-5,1 izan den eta Enkarterriak, %-3,3.

Industriako langile okupatuak eta balio erantsia faktoreen kostuetan, eskualdeka. 2006. Euroak milakotan.

	Pertsonal okupatua (kopurua)			Balio erantsi gordina, faktore- kostuan		
	2005	2006	Δ 06 / 05	2005	2006	Δ 06 / 05
Euskal AE / C.A. de Euskadi	249.696	250.862	0,5	15.701.676	16.624.164	5,9
Araba / Álava	49.673	49.443	-0,5	3.320.782	3.446.405	3,8
Arabako Ibarak/Valles Alaveses	1.924	1.961	1,9	128.980	130.203	0,9
Arabako Lautada/Llanada Alavesa	31.793	31.620	-0,5	2.073.654	2.135.805	3,0
Arabako Mendialdea/Montaña Alavesa	356	368	3,4	15.247	16.642	9,1
Errioxa Arabarra/Rioja Alavesa	4.323	4.337	0,3	375.342	399.311	5,9
Gorbeia Inguruak/Estribac. del Gorbea	4.058	3.852	-5,1	255.874	259.191	1,3
Kantauri Arabarra/Cantábrica Alavesa	7.219	7.305	1,2	469.616	505.252	7,5
Bizkaia	103.107	103.715	0,6	6.609.114	6.911.272	4,6
Arratia Nerbioi/Arratia-Nervión	4.895	5.141	5,0	266.380	279.814	5,0
Bilbo Handia/Gran Bilbao	60.291	60.091	-0,3	4.233.172	4.379.899	3,5
Durungaldea/Duranguésado	21.683	22.052	1,7	1.229.818	1.309.050	6,4
Enkartzioak/Encartaciones	2.211	2.139	-3,3	188.058	182.071	-3,1
Gernika-Bermeo	4.462	4.402	-1,3	209.127	232.944	11,4
Markina-Ondarroa	3.868	3.964	2,5	183.497	200.550	5,6
Plentzia-Mungia	5.697	5.926	4,0	293.315	326.942	11,4
Gipuzkoa	96.916	97.704	0,8	5.771.780	6.266.487	8,6
Bidasoa Beherea/Bajo Bidasoa	6.026	6.069	0,7	283.328	298.103	5,2
Deba Beherea/Bajo Deba	10.694	10.615	-0,7	518.765	550.285	6,1
Deba Garaia/Alto Deba	20.101	19.954	-0,7	1.103.086	1.202.213	9,0
Donostialdea/Donostia-San Sebastián	26.458	26.580	0,5	1.824.353	1.940.767	6,3
Goierri	13.626	13.824	1,5	898.046	983.691	9,6
Tolosaldea/Tolosa	7.911	8.178	3,4	449.118	501.893	11,8
Urola-Kostaldea/Urola Costa	12.100	12.484	3,2	692.791	789.535	13,9

Iturria: Eustat

Argibide gehiago nahi izanez gero:

Euskal Estatistika Erakundea / Instituto Vasco de Estadística

Donostia-San Sebastián kalea, 1 01010 Vitoria-Gasteiz

Tel: +34-945-01 75 00 Faxe: +34-945-01 75 01 Posta elektronik.: eustat@eustat.es

Harremanetarako pertsona: Iosune Azula Lazkano

Tel.: Faxe:

Prentsa-oharrak Interneten: www.eustat.es

Datu-bankua: www.eustat.es/bancopx/euskara/indice.asp